



2021UDOS0006

Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2021/05/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/05/2021

Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos**Bildutakoak: / Asistentes:**

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:**EH-Bildu**

Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fondón Pajares

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo
Oscar Mendo González

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Alexander Huitzi Alfonso
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin PodemosM^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000006
Eguna	2021/05/27
Hasiera	19.00
Amaiera	19.34

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

KontuhartzaileaMyriam Lizaso
Arruabarrena**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Andoni Alvarez Lete – EH Bildu

Gai Zerrenda:

- 2021/04/29(e)an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- EH Bildu talde politikoaren bozeramailea, batzordeetako kideen eta arduraldien kontu ematea.
- 2021/5 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.
- 2021.03.31 datako Kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.
- 2020ko likidazioaren berri ematea.
- Onartzea, hasierako izaeraz, Adineko pertsonen eguneko arretarako udal zerbitzuaren araudia proposamena.
- 2021/6 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 29/04/2021.

Parte Dispositiva

- Dar cuenta del cambio de portavoz del grupo político EH Bildu, de los miembros de las comisiones y de la atribución de responsabilidades.
- Propuesta de aprobación del expediente modificativo de crédito n° 2021/5
- Dar cuenta del informe de la Interventora a fecha 31.03.2021
- Dar cuenta de la liquidación 2020
- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de la Ordenanza del servicio municipal de atención diurna para personas mayores.
- Propuesta de aprobación del expediente modificativo de crédito n° 2021/6



Kontrola

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2021/0001 zenbakidunetik 2021/0900 zenbakidunera.
9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 8.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 2021/0001 y la nº 2021/0900.
- 9.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Arratsalde on guztioi eta ongi etorriak izan zaitezte 2021eko maiatzaren 27an egingo dugun pleno honetara.

“Muy buenas tardes a todas y todos. Bienvenidos todos y todas al pleno que vamos a realizar hoy, 27 de mayo de 2021.

“Oraindik ikus dezakezue erdizka gaudela mahaian eserita, beste zinegotziak publiko artean daude, batetik eta, bestetik, aipatzea Andoni Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko bozeramaileak, aitatasun baja hartu duela eta horrexegatik bere bozka Jon Zulueta jaunarengan eskuordetu du. Hori dela eta berak bi bozka izango ditu.

“Decía que, como seguimos con la situación del Covid19 podrán percibir que todavía no estamos todos los concejales aquí sentados porque parte de ellos están sentados entre el público y también, indicar que el concejal D. Andoni Alvarez, portavoz del grupo municipal EH Bildu, está de baja por paternidad y ha delegado su voto en el Sr. Jon Zulueta.

“Bozeramaile Batzrodean gaia aipatu zen eta ez zegoen inongo arazorik eta horrexegatik horrela egin dugu.

“Esto ya se comentó en la Junta de Portavoces y bueno, no habiendo ningún inconveniente al respecto hoy se da cuenta aquí. Mila esker. Haisera emango diogu, mesedez.”

1. 2021/04/29(e)an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2021/04/29 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2. EH Bildu talde politikoaren bozeramaile, batzordeetako kideen eta arduraldien kontu ematea.

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Garazi Usandizaga Zubiria zinegotzi andrearen lan egutegia luzatuko litzateke, Andoni Alvarez jaunaren baja dela eta, %23ko %73ra lanaldira pasatu da maiatzaren 13tik.

“Como consecuencia de la baja de el concejal D. Andoni Alvarez, se ha ampliado la jornada a Dña. Garazi Usandizaga Zubiria, pasando del 23% de jornada al 73%, desde el 13 de mayo de 2021.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3. 2021/5 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena..

“Kreditu gehigarrien (Sarekon 2021-KALD-000005-00) , kreditu gaikuntza (Sarekon 2021-KALD-000004-00) eta kreditu transferentzien (Sarekon 2021-KALD-000006) bidezko kreditu aldaketaren 2021/05 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Besteak beste, kontuan izanda:



- Jarduera Fisiko eta Kiroletako Batzorde Informatzaileak 2021.05.07an emandako aldeko proposamena (EH-Bildu abst. eta besteak aldekoak)
- Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2021.04.20an aho batez emandako aldeko proposamena
- Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak 2021.05.17an emandako aldeko proposamena (nahiz eta EH.Bilduk guztiakin ados ez egon)
- Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2021.04.14an emandako aldeko proposamena (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos ez dute parte hartu bozketan, aztertze denborarik izan ez dutelako)
- Hirigintza , Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Informatzaileak 2021.04.29an emandako aldeko proposamena.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2020/05 zenbakiko espedientearen berri eman da, kreditu gaikuntzaren, kreditu gehigarrien eta kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan izanik. Bertan adierazten dira aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeekin eta, era berean, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/05/18(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Kasu honetan, espediente hau, hiru zatitan banatuta dago. Batetik, kreditu gehigarria, 1.596.441 eurokoa, bestetik kreditu transferentzia bidezkoa eta honen kopurua 6.000 eurokoa eta bukatzeko Kreditu Gaikuntza, 43,320 eurotakoa.

“Decíamos que este expediente modificativo tiene tres apartados, el primero sería de créditos adicionales por un importe de 1.596.441 euros, en segundo lugar unas transferencias de crédito por importe de 6.000 euros y para terminar una habilitación de crédito por importe de 43.320 euros.

“Este tema ya se llevó a la comisión de Hacienda y allí se dieron todas las explicaciones oportunas.”

Gaia eztabaida jarri da eta lehenbizi, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Alkate andreak azaldu bezala, kreditu aldaketa hauek, Ogasunean aztertu dira, hortaz gain beste lau edo bost batzordeetan aztertu da, Kiroletakoan, Gizarte Zerbitzuetakoan, Zerbitzu batzordean, Hezkuntza eta Kultura eta Hirigintza batzordeetan landutakoak, zergatik? Azkenean kreditu aldaketa honetan kopuru handiko kreditu aldaketa bat denez, denetarik dagoelako.

“Badira partida batzuk, inbertsioak direnak, badaude beste partida batzuk, inprebistoak, aurreikusi ezin diren horietakoak izan daitezkeenak, adibidez, Joakin Larretako saneamendua bideratzeko egin beharreko obra dela, eta badaude beste batzuk gastuak direnak.

“Aurreko hilabetean, apirilean, komentatu genuen, goizegi zela nolabait ere, gastu korrontean horrelako aldaketak egiten hasteko. Maiatzean gaude, hau da, urtearen lehen partean eta aurreikusi gabeko partida dexente daudela baieztatzen da. Aurreko hilabeteetan egin zen halako mugimendu bat, azken orduan, gerakinetik ez hartzeko eta beste partida batzuetatik osatu ahal izateko, total, orain, orduan hustu zirenak, orain betetzen dira, azkenean gutzia zatu beretik hartzen da.

“Hemen gauza desberdinak. Batetik, ikusten da urtarrila amaieran aurkeztu eta onartu zen aurrekontuak ez zuela kontuan eduki kontuan hartu behar ziren hainbat elementu eta hainbat partida eta gure ustez hori akatsa izan zen, ikusten duguna da, aurrekontu horiek gehiago egin zirela komunikazio politikoaren ikuspegitik, hau da, partida hauek jaso ditugu, inbertsio hauek egingo dira, bestea, kopuru batzuk eman ziren baino, orain konturatzen ari gara kopuru horiek ez zirela benetakoak eta partidak orain gehitu egin behar ditugula, horrek zer esan nahi du? Udalaren gastua handiagoa dela momentuan esan genuena baino eta, nik uste dut hori, orain ikusten da hemen, egiten duguna poltsa txartelak, bosgarren eduki ontziak kentzeko gauzak, 70.000 euro gehiago, lorategien mantenurako 25.000 euro gehiago, emakumeen biolentzia matxistaren kontrako edo, aholkularitza juridikorako partida irekitzen da, hau da, partida batzuk gastua suposatzen dutenak urtez urte jaso behar ditugunak eta zer gertatzen da hemen? Momentu honetan urtarrilean ikusten ditugu partida batzuk eta ja, urtea hasi bezain pronto horiek handitu egiten ditugu eta nondik? Aurrezkietatik hartzen dugu. Honek, guri, galdera bat egitera garamatza. Orain, momentu honetan,



2022ko aurrekontua egiteko, 2021eko gastu guztia kontutan hartzen badugu, dirusarrerekin ez dugu orekatzen eta orduan, zer egingo dugu?

“Berriz ere, aurrezkietatik osatu, guk beti esan izan dugu, gerakina inbertsioetarako, inbertsio horiek estrategikoak badira, ahalik eta hobeto eta, gero gasturako egin behar bada gertatu daiteke, urte bukaeran, beti egotea partida batzuk agortu direnak eta egin beharra baina, urte hasieran egiteak, gure ustez elaborazioan enfoke txarra eman zaie eta lehentasuna eman zaio komunikazioari eta gauza asko aurkeztu nahi izateari udalaren benetako gastua baino.

“Ikusten duguna da gastua disparatu egin zaigula gauza askotan, hau da, kultura ekintzetan momentu honetan bikoiztea proposatzen da, bai, badakit, Covid, kultura, guzti hori baino justu, komunikazio digitalean ere, Basteroren komunikazio digitalerako 10.000 euro gehiago proposatzen dira, hau da, 30.000 euroko komunikazio partida bat, soilik udalaren zati baterako, ez udalaren komunikaziorako, eta abar, eta abar.

“Hala ere, badaude beste gauza batzuk, gure ustez oso inportanteak direnak, gure ustez, berandu aurkeztu direnak, adibidez, Mimendiko arrapalaren obra egiteko 155.000 euro, proiektu hau 2019ko udaberrian bukatu zelako, horrek esan nahi du, agintaldia hasi eta 2019ko udazkenen, eskatu genuen bezala, jarri zitekeela martxan bi urte pasa ditugu, zuzenean martxan jarri zitekeen inbertsio baterako.

“Bestetik, zerbitzuetako pabilioiaren proiektua egiteko, Illarramendiko lur sailean, udalak izango duen lursail horretan eraikitzeko partida ere jasotzen da eta hori ere guretzat lehentasunezkoa da eta gaur gaurkoz ikustea denok ados gaudela, ez dela pabilioi berri bat erosi behar, gogoratzen dut nola 2018ko aurrekontuen kontra bozkatzeko arrazoi bat izan zela, proposatu zenuela pabilioia erosi behar zela milioi batekin eta esaten genizuen, itxoin eta Illarramendin egingo dugu eta ez, ez, erosi egin behar da, milioi bat eta kontra bozkatzeko diogu aurrekontuei, orain adostasuna badago horretan eta gauza horiek ere, naturaltasunez komentatu behar dira.

“Guzti horrengatik, guk alde bozkatuko dugu baino, bai, eskatu nahi dugu, udal gobernuaren aldetik gastu korrontea kontrolatzeko, murrizteko edo aztertzeke kudeaketa plan bat egitea, bai? Zeren, bestela, gertatuko zaigu, urtez urte aurrezki guztia gastuari lotuta gastatuko dugula, hori ezin da horrela egin.

“Gogoratzen dut 2011, ez gara ahazten, 2011-2015 agintaldia zer nolako gogorra izan zen. Udalerri honetan egon ziren zonalde batzuetan farolak piztuta eta beste batzuetan itzalita dirua aurrezteko eta, horrela zenbait gauza, kontratuak negoziatu, inbertsio estrategikoak egin ziren gastu korrontea murrizteko. Kiroldegiko piszinen sakonera aldatu zen, Urarekin egin zen guztia, herriko argiteria, inbertsio batzuk agina, komunikazio aldetik ez dutenak oso argazki polita ematen baina, oso, oso onak izan ziren herriaren interes ekonomikoentzat eta guk faltan botatzen duguna da, gastu korrontea kontrolatzeko plan bat egitea eta uste dut, egin behar dela. Bere garaian egiten ziren proposamenak, pertsonaletik %15 murriztu behar da, orain, guk ez dugu esango zer egin behar dezuten, gazteleraz esaten den bezala, zartagia zuen eskuetan, baino, ikusten dugu da ez dagoela planik, bi urte pasatu ditugula eta gastua goraka doa eta planik ez hori kontrolatzeko.

“Hala ere, kreditu aldaketa proposamen honi baiezkoa emango diogu eta espero dezagun datozen hilabeteetan plan honi buruz hitz egitea edo esku artean zerbait izatea.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Bueno, nik, bakarrik esan, egindako akatsak onartu egin direla, bai batzordean eta baita aurreko plenoan ere, ez dut horretarako inongo arazorik, egindako akatsak onartzeko eta, orain esan duzun azken esaldiaren harira, tokian tokiko eta garaian garaiko egoera bakoitzari erabaterako edo bestera kudeatzea tokatu zaigu, zuei tokatu zitzaizuen krisialdia, guri tokatu zaigu Covid-ren pandemia eta horrek bere eragina izan du, orduan, besterik ez.”

Zulueta jaunak erantzuten du:

“Bai, bai. Agian ez da ondo ulertu. Nik esan nahi dudana da, gaudela pixka bat, agian, ondoren hitz egingo dugu likidazioa dela eta, baina, agian dugu ikuspegi erratu bat udalaren egoera ekonomikoaz dagoen aurrezkiagatik, esan nahi dut, eta bistan da, hemen gauzak ez daude oso orekatuak, ikusten dugunez, hori da guk esaten duguna, ez dago aurrekontu bat momentu bat, berriz ere atzera egingo bagenu eta gastu korrontea guztia jasoko bagenu aurrekontuan ez genduke kuadratuko.



“Likidezia egoera on bat dugu eta arrazoiak gero hitz egingo dugu, dagokion puntuan, baina, faltan botzen dugu kudeaketa, ez dugu ikusten plan bat esaten duena, egoera hau da eta gastu korrontearen egoera hau da eta guk, datozen bi urtetan, hiru urterako plan hau egiten dugu eta hemendik murriztuko dut..., ez dugu hori ikusten eta hori da eskatzen duguna. Ez dugu esaten guri tokatu zitzaigula ez, ez, gaur gaurkoz egoera hau da.”

Jarraian, Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Sin querer entrar en muchas cuestiones, pero, sí desde luego que, citar que independientemente de los errores que se hayan podido cometer es bueno tener memoria y es bueno decirlo que este equipo de gobierno y todos los anteriores también, han hecho modificaciones de créditos en marzo, en abril, en mayo y si no les invito a que miren el 2016, 2017 y 2018. Creo que esto es un tema que se suele hacer y en ese sentido cada uno, luego ya va viendo y, bueno, pues no entrar en que teniendo remanente en este ayuntamiento también se hizo un plan económico-financiero para pedir un préstamo, con lo cual, ahora hablar de planes de gestión, pues, daría bastante para decir y para comentar. “Edozer gehiago ez balego, bozketara pasatuko gara.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 202105espedientea, kreditu gehigarriaren, kreditu gaikuntzaren eta kreditu transferentziaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, hau da:

KREDITU GEHIGARRIAK

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
(34)	Poltsak, txartelak, besteak 5 eduk	40.000,00	30.000,00	70.000,00
(152)	Parke, lorategien mant.(hornidura)	8.000,00	25.000,00	33.000,00
Berria	Ur-kontagailuen erosketak	0,00	100.000,00	100.000,00
Berria	Landa guneko argiteria	0,00	50.000,00	50.000,00
Berria	Zerbituzetako pabeloia	0,00	150.000,00	150.000,00
Berria	Plazaolako drenajea	0,00	240.000,00	240.000,00
Berria	Mimendiko arrapala	0,00	155.000,00	155.000,00
Berria	Joakin Larretako saneamendua	0,00	70.000,00	70.000,00
128	Kirol Arloko ekipamendua	10,00	150.000,00	150.010,00
(391)	Eguneko zentroko obrak	10,00	1.050,00	1.060,00



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2021/05/27

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 27/05/2021

Berria	Laguntza juridikoa (emakumeei)	0,00	6.000,00	6.000,00
(369)	Kultur ekintzak	220.000,00	200.000,00	420.000,00
(237)	Patrimonioaren dinamizazioa	35.000,00	15.000,00	50.000,00
(461)	Komunikazio dijitala kultura	20.000,00	10.000,00	30.000,00
(154)	Eraikuntza eta etxebizitza mantenim	50.000,00	50.000,00	100.000,00
(216)	Ingurugiroko ikerketak	30.000,00	10.000,00	40.000,00
(286)	Sosten.enerjetikoa	35.000,00	25.000,00	60.000,00
(318)	Rikardo Arregi birigunea	146.000,00	24.000,00	170.000,00
(319)	Ondarreta ikastetxeko obrak	25.000,00	25.000,00	50.000,00
(384)	Etxebizitza eta lokalak	68.090,09	45.000,00	113.090,09
(1039)	Lokalen eta etxebizitzako ekipamen	34.400,00	20.000,00	54.400,00
(Ajusteak, 2019koa da)	Inbentarioa	0,00	8.761,00	8.761,00
(606) (Ajusteak 2020koak dira)	Soldaten ajusteak (kontabilizatu gabe)	0,00	29.300,00	29.300,00
(607)	G.Aseg.ajusteak (kontabilizatu gabe)	0,00	22.600,00	22.600,00
(242) /Dirulaguntza du	Soldatak, gazte programa	0,00	35.570,00	35.570,00
(244) /Dirulaguntza du	G.Aseg., gazte programa	0,00	11.160,00	11.160,00
(252)	ALE 20-21	0,00	65.500,00	65.500,00
(253)	ALE 20-21 (G.Aseg)	0,00	22.500,00	22.500,00
GUZTIRA		711.510,09	1.596.441,00	2.307.951,09

ESKUC04091e9-28ee-407b-898d-202b7d3dcd43



FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.596.441,00
GUZTIRA		1.596.441,00

KREDITU TRANSFERENTZIAK

Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0400.226.230.20.98 2021	SAHARA PROGRAMA	6.850,00	6.000,00	850,00
GUZTIRA		6.850,00	6.000,00	850,00

Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
Berria	Laguntza juridikoa(emakumeei)	0,00	4.000,00	4.000,00
Berria	Convenio Frente POLISARIO	0,00	2.000,00	2.000,00
GUZTIRA		0,00	6.000,00	6.000,00

KREDITU GAIKUNTZAK

2021ko aurrekontuan kredituak gaitzeko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Zenbatekoa
1 0400.480.231.30.01 2021	G.L.L.	6.000,00
1 0400.480.231.30.98 2021	AGIS	37.320,00
GAITU BEHARREKO KREDITUAK GUZTIRA		43.320,00

2021ko aurrekontuko kreditu gaitzaren finantzaketa



Kod.	Sarrerren partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 410.01.231.30 2021	EJ DIRULAGUNTZA GLL	6.000,00
a	2 420.02.311.01 2021	GFA SUBV. COVID-19	37.320,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			43.320,00

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

4. 2021.03.31 datako Kontuhartzaileak emandako txostenaren berri ematea.

Alkate andreak hartu du hitza eta 2021eko martxoaren 31 data duen Kontuhartzaileak emandako txostenaren berri eman du, honako esanez:

“Dakizuen bezala, hiru hilabetero egiten dugu, 2021ko martxoaren 31an datuak ikusita, izango lirateke 1.151.716,60 euroko fakturak, pendiente zeudenak data horretan ordaintzeko pendiente, hemen ikusi dezakegunez, baita ere, eragina dauka, urteko lehenengo hiru hilabeteak.

“Decíamos que esto se trata de dar cuenta, se hace trimestralmente, tal y como lo pide la ley. Las facturas que estarían pendientes de pago a 31 de marzo de 2021 serían por un importe de 1.151,716,60 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

5. 2020ko likidazioaren berri ematea.

Alkate andreak hartu du hitza eta berak 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartuz emandako ebazpenaren berri eman du, honako esanez:

“Batzorden banatu zen txosten osoa, datu asko eta azalpen asko dituen, baina, laburbilduz, datu zehatz batzuk eman nahi ditut.

“Batetik, diruzaintzako gerakina guztira, 12.603.633,84 eurokoa da eta handik, kenduta saldo kobragaitzak eta gehiegizko finantzaketa lotua, gastu orokorretarako diruzaintza gerakina 9.226.028,43 eurokoa da.

“A la comisión de Hacienda se llevó el informe correspondiente de la liquidación del presupuesto de 2020, en la cual se dispone de un montón de información con un montón de datos, allí también ya se dieron las explicaciones oportunas a las preguntas pero, bueno, por resumir la situación, tendríamos por una lado el remante de tesorería total de 12.603.633,84 euros, al cual si restamos los importes de dudoso cobro y los gastos de financiación afectada, nos quedaría un importe de remanente de tesorería para gastos generales de 9.226.028,43 euros.

“Bestetik, baita ere, 2020ko aurrekontuaren emaitza positiboa izan da, milioi batekoa.

“Bukatzeko, kredituen txertaketa guztira 1.754.786,54 eurokoa.

“Decía que, por otro lado el resultado del ejercicio de 2020 tendría un importe de 1.988.154,23 euros y en cuanto a la incorporación de los créditos del ejercicio de 2020 que pasan al 2021, el importe es de 1.754.786,54 euros.

“Zalantzaren bat edo?”

Jarraian, Zulueta jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko. “Guk, norabide berean eta, gaur gaurkoz hitz egiteko, nahi baduzue aurreko agintaldiaren kontrol sesioa ere egin dezakegu, ez dugu arazorik, baina, nahiago dut, gaur gaurkoz aritzea eta etorkizunari begira, andoaindarrei gehiago interesatuko zaielako.



“Esan den bezala, aurrezki handia gelditzen da Andoingo udalean, bi arrazoi nagusi, uste dut esan behar delako, abiapuntua horrela zelako, 4 milioiko aurrezkiarekin abiatu zen agintaldi hau, egia da eskatu zela aurreko agintaldian, esan den bezala, 5 milioiko kreditu bat, gutxiago erabili zen eta 4 milioiko gerakin bat utzi zen, inbertsioak egiteko eta gastu korrantea murrizteko.

“Orain horri gehitzen zaio, 2021ean COVIDaren kontuarekin aurrekontuaren exekuzioa oso oso baxua izan delako eta, aurkitzen dugu dagoen gerakina handia dela, beraz, guk uste dugu, aurreko puntuan esan dugun bezala, gastu korrantearen kontuarekin, uste dugu ere, honen inguruan beharko genukeela inbertsio plan adostu bat. Adostua, batez ere, ez genuke esan behar, baina, diru hau andoindar guztiena da eta andoindar guztien artean erabaki beharko genukeelako inbertsioak nola egin eta, ez dugu uste hau gobernuaren zeregin eskusibo bat denik, nahiz eta, agirikoa da, gobernu exekutibo bat du, gauzak burutu ahal izateko.

“Hau esaten dugu, guk, kezka batekin ikusten dugulako eta da, uste genuen, guk bagenuen susmoa, pleno areto honetan nahikoa ados ginela guztiok herri honek behar zituen inbertsioak zeintzuk ziren, batez ere, ur hoditeriaren berritze estrategia bateri heldu genion, lau urteetan egin ziren proiektu desberdinak, Kaletxikiko proiektua enkargatu eta exekutatu, kale Nagusia, Juan Bautista Erro proiektua egin eta exekutatu, Joakin Larreta, orotara 2.000 metro tuberi aldatu ziren.

“Hori bere garaian zerrendatu zen eta lau urteko tarte horretan kreditua eskatu eta egiten hasi ginen, gogoratzen dut esaten zela, gutxi da, gehiago egin behar da, makinariak ez du gehiagorako ematen. Guk uste genuen horrekin jarraituko zela baina, azken bi urte horietan ez da ezer egin, ez da ez dela exekutatu, ez da enkargatu, horrek kezka sortzen digu, bestetik, baziren ere Kiroldegikoa eta Liburutegikoa eta aurrera pauso gehiegirik ere ez dugu ikusten. Bitartean ikusten dugu, departamentuen artean ateratzen direla hainbat inbertsio modu desberdinean. Aurreko Kiroletako batzordean ahoz esaten da 150.000 euro puntrak bat egiteko eta, ondoren, 48 ordutan ere, ludotekarena eta ikusten duguna da, ez dakit, oso modu kohesinatuak egiten den, gobernuaren barne lehiaketa horretan hori ere..., planifikazio falta badago eta, uste dugu ere, inbertsio plan bat behar dugula.

“Batetik, ikusteko, berreskuratuko ditugun herri honetan orain arte inbertsio estrategikoak uste genituenak edo ez, eta ez baditugu berreskuratuko esan behar da zergatik. Bestetik ere, erabaki behar da gerakin honetatik zenbat bideratuko den inbertsioetara eta zenbat gordeko den. Bere garaian gorde zen bezala, beti ere aurrezki bat izateko helburuarekin, batez ere, kontutan hartuta bi gauza, bat, gastua altua dela eta bi, gerakinak ez direla egongo urtez urte. Aurrekontuaren exekuzio maila oso altua izango da eta gerakin gehiago ez dugu espero datozen urteetan, beraz, orain da momentua, gure ustez, honetan ere, inbertsio plan bat adosteko, guri gustatuko litzaiguke guztion artean adostua izatea eta datozen urteetan hori inplementatzeko aukera izatea. Hori da gure eskaera.”

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa erantzun du:

“Yo, solamente decir que, a veces no sé si estamos en mundos paralelos, porque cuando se dice que llevamos dos años de equipo de gobierno y que no se han ni siquiera encargado muchos de los proyectos, pues desde luego, sería justo reconocer que dos años han sido y recordarles que en marzo de 2020 empezamos una pandemia que, lógicamente y como no podía ser de otra manera detuvo todos los proyectos que se estaban poniendo en marcha, pero bueno, eso no es óbice para que efectivamente, hayan pasado 2 años pero bueno, teniendo en cuenta que 1 año y 2 meses corresponden a ese estado de pandemia.”

Jarraian, Santana andrak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Desde nuestro grupo queremos poner de manifiesto que ya que tenemos las cuentas saneadas en el ayuntamiento, pudiera haber unos presupuestos más participativos y pudiera la ciudadanía en un momento dado, como dice el Sr. Zulueta, entre todos, estando las cuentas bien, establecer unas prioridades y a por esas y no que por el camino nos vayan surgiendo otras cosas que a lo mejor nos limite el poder hacer lo que es prioritario y nos gustaría, ya que tenemos una economía saneada, pudiéramos hacer unos presupuestos participativos, vamos a decir, proyectos participativos que pudieran ser votados por la ciudadanía y llevarlos a cabo.”

Alkate andreak erantzuten du:



“Sra. Santana, eso ya se aprobó en la comisión que tuvimos el mes pasado. Desde este equipo de gobierno se ha propuesto hacer unos presupuestos participativos para el año 2022 de hecho ya, se ha adjudicado el servicio para ayudarnos en ello, Si mal no recuerdo en el presupuesto se reservaba una partida de 250.000 euros para que sea compartida y sea la ciudadanía quien proponga cómo hacerlo. Estamos en ello, desde el partido socialista llevaba años haciéndose, pues en la medida que se ha podido y lo que antes que se ha podido se va a implementar y de cara al 2022, como decimos, se va a poner en marcha y la ciudadanía podrá elegir.

“Ahora tenemos que poner en marcha cómo va a ser ese proceso, estamos ahora mismo en esa parte, pero bueno, se hará.”

Santana andreak erantzuten du.

“Estoy en las comisiones y lo sé, simplemente es para establecer unas prioridades y que quede claro que se lleve a cabo y no se quede en el camino.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

6. Onartzea, hasierako izaeraz, Adineko pertsonen eguneko arretarako udal zerbitzuaren araudia proposamena.

Ikusirik, *Adineko pertsonen eguneko arretarako udal zerbitzuaren araudia* proposamena.

Ikusirik, Idazkariak 2021ko maiatzaren 10an egindako txostena.

Ikusirik, 2021ko maiatzaren 17a datan Emakume eta Gizonen Berdintasun Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuak Batzorde Irizpenemaileak 2021ko maiatzaren 25an emandako irizpena.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Puntu honetan eta 7. puntuari dagokionez ere, esan beharra dago, deialdia egin zen momentuan ez zeudela batzordeetako irizpenak onartuta eta orduan, gaia bera eztabaidatu eta bozkatu aurretik, gaiak gai zerrendan sartzea, bozkatu behar da.

“Decía que, tanto en este punto 6, como en el séptimo, en el momento de realizar la convocatoria del pleno, no estaban estos dos puntos dictaminados por las correspondientes comisiones y por lo tanto, antes de proceder al debate y votación de los puntos, se tiene que votar la procedencia de la inclusión en el orden del día de estos dos puntos.”

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Ondo, beraz, gaiaren eztabaida presazkoa dela iriztea bozketara jarriko dugu.”

Gaia bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, onartu du.

Berrir hartu du hitza Alkate andreak eta honakoa esan du:

“Puntu honetan, dakizuen bezala, aurreikusten dugu 2021ean Ambrosia Olabide zentroan, Eguneko Zentroa martxan jartzea, pertsona autonomoentzat eta lehenengo menpekotasun maila duten pertsonentzako. Horrexegatik ekartzen dugu ordenantza onartzeko, ondoren indarrean jartzeko.

“Está previsto que en el año 2021 se ponga en marcha el Centro de Atención Diurna en el Centro de Ambrosia Olabide para personas autónomas o con el nivel 1 de dependencia Uno de los primeros pasos para ello sería aprobar esta ordenanza de atención diurna para personas mayores.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onestea, hasierako izaeraz, *Adineko pertsonen eguneko arretarako udal zerbitzuaren araudia*.

2.- Administrazio-espedita jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesdunek espedita aztertu eta egoki irizitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedita jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu ordenantza behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

**7. 2021/6 zk.ko kreditu aldaketa espedientea onartzeko proposamena.**

Idazkari jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Gaia gai zerrendan sartzea bozkatu behar da.

“En primer lugar se tiene que votar la inclusión de este asunto en el orden del día.”

Gaia bozketara jarri da eta Osoko Udalbatzak, aho batez, eta beraz, batzarkideen gehiengo osoaren quorumarekin, onartu du.

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNVko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, Zazpigarren puntu honetan, batzordean adierazi nuen bezala, SALKIN Merkataritza Elkartearekin urtero egiten dugun hitzarmena egin ahal izateko diru partida aurreikusita zegoen, bere lekuan eta gero Covid19ari aurre egiteko dirulaguntzak ateratzeko beste partida bat aurreikusita genuen beste leku desberdin batean. Orduan, SALKINEk kudeatuko dituen aterako ditugun bono kanpaina desberdinak, txertatu behar ditugu guztiak partida berean hitzarmena sinatu ahal izateko, horregatik kreditu aldaketa aurkezten da.”

“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2021-KALD-000008-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.

Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzordeko Lehendakariaren 2021eko maiatzaren 19ko erabako proposamena ikusi ondoren.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2021/6 zenbakiko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Ikusirik, Kontuhartzaileak egindako txostena. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Ikusirik, 2021.05.25eko Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	100.000,00	100.000,00	0,00
	GUZTIRA	100.000,00	100.000,00	0,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulu a	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	18.000,00	100.000,00	118.000,00
	GUZTIRA	18.000,00	100.000,00	118.000,00

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe imo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailtza



Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa

3.- Dena den, udal aurrekontuaren dirulaguntza eranskinaren aldaketa proposatu delako, jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez badira eranskinaren aldaketa erabakiarena hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

8. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 2021/0001 zenbakidunetik 2021/0900 zenbakidunera.

Alkateak zinegotzi guztiei jakinarazi die ebazpenak, nahiz eta edukiaren berri izan Udalbatzarra aurretik, beraien esku daudela, hain zuzen ere, 2021/0001 zenbakidunetik 2021/0900 zenbakidunera.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Osoko Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

9. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Ez dira izan.

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du.

“Hilabetero egiten dugun bezala, nahiz eta, gaurko egoera datuen aldetik agian jeitsi den, eskatzen dugu, mesedez, oraindik, arduraz eta zuhurtziaz jokatzea eta alden neurrian, indarrean dauden arau guztiak betetzea.

“Solicitar que, aunque es verdad que los números están bajando, la situación está mejorando en cierta manera pero, bueno, todavía nos queda camino por recorrer y en ese sentido seguimos pidiendo a la ciudadanía que actúe con responsabilidad y con prudencia y que se sigan cumpliendo las normas que están actualmente en vigor. Mila esker. Eskerrik asko.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.34 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

